

AZAROAK 25

Datorren azaroak 25a, igandea, genero indarkeriaren aurkako egun internazionala da. Hori dela eta, gure eskolan ekintza xume bat antolatu dugu. Ekintza hau ahalik eta ikusgarriena izan dadin, irakasle nahiz ikasleok, kolore morea duen arroparen bat ekarriko dugu: alkandora, nikia, jertsea,... Eskerrik asko.

PROSA ETA POESIA

XXXI. prosa eta poesia lehiaketako sare banaketaren egun aldaketa jakinarazten du Udalak. Oartzungo ia ikasle guztiak parte hartzen duten lehiaketaren sari banaketa, Txerri Egunean egin izan da, azken urte luzeetan. Aurten, Hitzen Lihoa egitasmoaren proposamenaren baitan, sariak banatzeko ekitaldiaren eguna aldatu da. Abenduan 4ean izango da, Xabier Leteren heriotzaren 8. Urteurrenaren egunean, arratsaldeko 18:30etan Udaletxeko Areto Nagusian.

SAN NIKOLAS EGUNERAKO ARAUAK

Datorren asteartean, abenduak 5, San Nikolas bezpera dela eta, urtero bezala kantatzera aterako gara Haur Hezkuntza osoa eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2. maila. Gurekin kantatzera etorri zaitzuten gonbidatzen zaituztegu eta dena behar bezala joan dadin honako gomendio hauek luzatu nahi dizkizuegu: umeak irakasleen ardurapean daudenez, taldearekin batera joan behar dute; kantatzerako garaian, ikasleen atzean kokatu, maindireak zabaltzeko nahikoa espazio utziz eta isiltasuna mantendu, momentu hori errespetatzea oso garrantzitsua da. Beti bezala, argazkiak blogean jarriko ditugu hurrengo egunetan. Hasiera 10:45etan izango da eskolako aterpean.

IRRIBARREEN BIDEZ SENDATZEN

Ospitaleko pailazoen elkarteak gara eta irribarraren ahalmena eta zirraren lanketa sustatzen dituen osasun-laguntzako proiektu bat garatzen dugu. Gure lana ospitaleratuta dauden haurreri eta pertsona helduei zuzenduta egoteaz gain, senideak, lagunak eta ospitaleko langileak sartzen ditu bere esku-hartzeetan. Kolaboratu ezazu gurekin eta eraman etxera 2019ko egutegia 10€ren truke. Egutegia eskuratzeko deitu edo hurbildu Elizalde Eskolako bulegora. Eskerrik asko.



25 DE NOVIEMBRE

El próximo 25 de noviembre, domingo, es el día internacional contra la violencia de género. Por ello, la escuela celebrará un acto sencillo. Para que este acto sea lo más vistoso posible, todo el profesorado y el alumnado vendrá con alguna prenda de color morada: jersey, camiseta, chaqueta,... Muchas gracias.



PROSA Y POESÍA

El Ayuntamiento de Oiartzun informa sobre el cambio de día del reparto de premios del XXXI concurso de prosa y poesía. En este certamen en el que casi la totalidad del alumnado toma parte, el reparto se suele hacer el día del cerdo. Este año, dentro del proyecto "Hitzen Lihoa", se ha cambiado el día del reparto. Será el día 4 de diciembre, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento, en el octavo aniversario de la muerte del cantante Xabier Lete.

NORMAS PARA SAN NICOLÁS

El próximo martes, 5 de diciembre, todo el alumnado de Educación Infantil y primero y segundo de Educación Primaria saldrá a cantar como todos los años. Invitamos a las familias a participar en esta actividad, y queremos hacer las siguientes recomendaciones para que todo transcurra lo mejor posible: como el alumnado está a cargo del profesorado, es necesario que todos/as vayan en grupo. A la hora de cantar, es necesario colocarse respetando el grupo, y sobre todo, respetar el momento en el que cantan, manteniendo el silencio. Como siempre, las fotos las colgaremos la semana siguiente en nuestro blog. Esta actividad dará comienzo a las 10:45 en el patio de la escuela.

CURANDO CON SONRISAS

Somos una asociación de payasas y payasos de hospital que lleva a cabo un proyecto de acompañamiento sanitario que promueve el poder de la risa y el trabajo de las emociones como herramienta transformadora. Trabajamos principalmente con niños, niñas y personas mayores, pero también con sus acompañantes, familiares y trabajadores del hospital. Colabora con nuestra asociación llevándote un calendario a casa por 10€. Para conseguir el calendario llámala a la secretaria de la escuela. Gracias.

ETXERA BAKARRIK JOATEKO BAIMENA

Eskolak eten gabean hobetzeko asmoa du, hori dela eta, egoera ezberdinak ahalik eta egokien lotze aldera, etxera bakarrik joateko baimena banatu dugu. Gure klaustroan erabaki zen, 16:30etan etxera bakarrik joan zitezkeen umeen baimena jasotzea, beti ere, gerora begira aurki daitezkeen arazoak ekidin asmoz.

EMAUS PLASTIKORIK EZ

Plastikozko botilak bilduko ditu Emaus fundazioak plazan

Hondakinen Prebentziorako Europako Astea dugu hau (azaroaren 17tik 25era) eta hori dela eta, Emaus fundazioak, erakunde publikoen laguntzarekin, *Itsasotik mahaira* ekimena antolatu du. Gipuzkoan 5.000 biztanletik gorako herrietan gauzatuko da plastikozko botilak eta bilgarriak murrizteko kanpaina hau; tartean, Oiartzunen.

Plastikozko botilak eta bilgarriak Doneztebe plazan - Kastroko plazan- jarritako nasan utzi beharko dira. Bildutako materialarekin poltsa berrerabilgarriak sortuko dituzte.

Plastikozko hondakinak uzten dituzten herritarrei argazkia atera eta facebook, twitter edo Instagram kontuetan #plastikoAIPiPil traholarekin partekatzen dituzten herritarren artean zozkatuko dira poltsa berrerabilgarri horiek, baita SinDesperdicio ekonomia sozialeko enpresak sortzen dituen material birziklatuko 35 orgatxo ere (oinarriak www.emaus.com-en).

Adituek diotenez, daramagun martxa honetan 2050 urterako plastiko gehiago egongo da itsasoan arrainak baino. Oiartzungo Udalak oiartzuarrak ekimenean parte hartzera gonbidatu nahi ditu, plastikoak itsasoan sortzen dituen kalteak saihesteko modu eraginkorra berrerabiltzea eta prebentzioa baitira.

PERMISO PARA IR SOLOS/AS A CASA

La escuela tiene la intención de mejorar continuamente. Por ello, con el objetivo de atar diferentes situaciones, hemos repartido el permiso para que el alumnado pueda ir solo a casa. Nuestro claustro decidió recoger el permiso de las familias para que vuestro hijos e hijas puedan ir solos/as a casa, y así evitar problemas en el futuro.

EMAUS SIN PLÁSTICO

Emaus recogerá botellas de plástico en el plaza del pueblo.

Estamos en la semana de la prevención de residuos de Europa (del 17 al 25 de noviembre). Por ello, la fundación Emaus, con la ayuda de las instituciones públicas, ha organizado el proyecto del mar a la mesa. En Gipuzkoa, en los pueblos de más de 5.000 habitantes, se realizará la campaña para la recogida de botellas de plástico, entre ellas, también Oiartzun.

En la plaza hemos colocado un contenedor, donde se depositarán las botellas de plástico, que se convertirán en bolsas reutilizables.

Los habitantes que dejen botellas de plástico, podrán sacarse una foto que será subida a las redes sociales facebook, twitter o Instagram con el #plastikoAIPiPil. Las personas que participen en esta actividad podrán optar al sorteo de dichas bolsas reutilizables. Además de ello, se optará al sorteo de 35 carros de la empresa social SinDesperdicio (bases en www.emaus.com).

Según algunos estudios, al ritmo actual, en el año 2050 habrá más plástico en el mar que peces. El Ayuntamiento llama a los habitantes de Oiartzun a tomar parte en esta iniciativa, ya que la reutilización y la prevención son la mejor manera de proteger a los océanos del plástico.



Informazio gehiago:
www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es eta
www.elizalde.eus

Más información en: www.elizalde.eus y
www.elizaldekogurasoelkartea.blogspot.com.es

